

Hirigune, Hiri merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen programa - Hirigune 2026

Oinarrizko informazioa

Deskribapena

Xedea

Agindu honen xedea da merkataritza-elkarteen jarduera bultzatzeko 2026ko laguntzak arautzea, hiri-merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzeko, modu horretan merkataritza-sektorea biziberri dadin.

Aurrekontuko zuzkidura

2.150.000

Prestazio ekonomikoa

Laguntza-mota

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak lerro hauetan kokatuko dira, lehentasunez:

- Hurbileko Merkataritza dinamizatzerako bideratutako azterlanak.
- Hurbileko merkataritzari laguntzea.
- Digitalizazioa eta teknologien erabilera.
- Konpetentzia digitalei buruzko prestakuntza.

Aurrekontu-dotazioa

1. Emandako laguntzen zenbatekoa ahalik eta handiena izango da, 2. artikulua aplikatzearen emaitzatik, betiere artikulua honen hurrengo puntuan zehaztutako udalerriko muga kontuan hartuta.

2. artikulua: agindu honek onuradun izateko eskatzen dituen betekizunak betetzen dituzten erakundeei laguntzak ematea du helburu, baldin eta eskabideak behar bezala eta sasoiz egin badituzte.

Horretarako, programa finantzatzeko erabili beharreko aurrekontu-zenbatekoak ez badira nahikoak egindako eskabideei gehieneko zenbatekoetan aurre egiteko, laguntza eskabideen artean hainbanatuko da.

2. Udalerriko elkarten multzorako dirulaguntzaren gehieneko muga eragiketa honen emaitza izango da: merkataritza-tartearen arabera dirulaguntza bider udalerriko merkataritza-dentsitatearen koefizientea

- . 40 denda baino gutxiago dituzten udalerriak: 12.000,00 euro
- . 41-150 denda dituzten udalerriak: 27.000,00 euro
- . 151-250 denda dituzten udalerriak: 35.000,00 euro
- . 251-700 denda dituzten udalerriak: 55.000,00 euro

- . 701-1.500 denda dituzten udalerrak: 70.000,00 euro
- . 1.501-3.000 denda dituzten udalerrak: 95.000,00 euro
- . 3.000 dendatik gora dituzten udalerrak: 125.000,00 euro

Ordainketa-modua:

Honela ordainduko dira laguntzak:

Emandako dirulaguntzaren %80 emakida-ebazpena eman ondoren ordainduko da, 18.a) artikuluan aurreikusitako epea igarota, ukorik izan ez bada.

Gainerako zenbatekoa agindu honen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera gastuen justifikazioa likidatu ondoren ordainduko da.

Ordainketa horiek egiteko, onuradunak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak ere.

Informazio gehigarria

[Hirigune-2026-FICHA-INTERNET-eus.pdf](#)

Nori dago zuzenduta

Merkatarien Elkarteak eta Elkarte Mistoek

Betekizunak

- Eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak:

Informazio xehetua

1. Eskabide formularioa.

2. Ordezkaritza hirugarren pertsonen esku utzi nahi izanez gero, ordezkari jardun dezaten modu elektronikoan, eta horretarako erabiltzen ez bada Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan dagoen ahalordetzeen erregistro elektronikoa, «Borondatezko legezko ordezkari egilestea-inprimaki normaldua» delakoa erantsi beharko zaio:

–Pertsona fisikoen kasuan: Ordezkaritza ematen duen pertsonaren NANA edo agiri baliokidea, baldin eta ez bada nahi instrukzio-organoak aipatu informazioa lor dezala administrazioarteko elkarreragingarritasun-zerbitzuen bitartez.

–Pertsona juridikoen kasuan: ordezkari-ahala edota ordezkari hirugarren pertsona bati ematen dion erakundearen legezko ordezkari gisa legitimatzen duen bestelako edozer agiri, zuzenbidez balio duena.

3. Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde eskatzaileak alta eman edo bere banku-datuak aldatu beharko ditu Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Hirugarrenen Erregistroan. Horretarako, dagokionaren arabera,

aurrez aurre edo telematikoki egin ahal izango dute, <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/hirugarrenaren-datu-aldaketa> webgunean jasotako jarraibideen arabera.

Hirugarrenen alta Hirugarrenen Erregistro Telematikoaren bidez egiten ez bada, inprimakiarekin batera nortasun fiskaleko txartela ere aurkeztu beharko da.

4. Eskaerarekin batera ondorengo agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskatzailearen identitatea egiaztatzen duen dokumentazioa; horretarako, eratzes-
eskritura, estatutuak eta erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko ditu.

b) Entitate eskatzailearen identifikazio fiskaleko txartela, baldin eta nahi ez bada
instrukzio-organoak aipatu informazioa lortzea administrazioarteko
elkarreragingarritasun-zerbitzuen bitartez.

c) Laguntza zer jarduketarako eskatzen den, bada horietako bakoitzerako azalpen-
memoria bat, merkataritza-ikuspegitik egina, gutxienez informazio hau jasoko duena:

1) Garatu beharreko jarduera bakoitzaren gauzatze-proiektua, zera adieraziz:

1.a) Lortu nahi diren helburuak.

1.b) Gauzatu beharreko ekintzak.

1.c) Egindakoaren eraginkortasuna neurtzeko adierazleak.

2) Sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatuak.

3) Gauzatze-egutegia.

4) MSPB azterlanean edo hori ordezkatzeko edo osatzen duen beste azterlan
batean sartzen dela.

Udalerrriak PERCO azterlanik ez badu, udalerriko merkataritza-garapenean
jarduketak egitea egokia dela egiaztatzea.

5) Jardueran parte hartzeko aukera jakinarazteko erabiliko den sistema, hala behar
den kasuetan.

d) Hiri-merkataritzako elkarte, plataforma, talde edo elkarteko idazkariaren ziurtagiria,
2025eko abenduaren 31n eguneratutako bazkideen zerrenda eta bazkide bakoitzak
azken ekitaldian bildutako kuotak jasotzen dituen. Enpresen zerrenda sexuaren
arabera bananduta islatu beharko da; alegia, merkataritza-enpresetako titular diren
emakumezkoak adieraziko dira, alde batetik, eta titular gizonaezkoak, bestetik.

e) Udalerriko elkarteek sinatutako akordioa, 4. artikuluan adierazitakoaren arabera.

f) Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 22.2 artikuluan
identifikatutako administrazio-ziurtagiri positiboak, baldin eta eskatzaileak organo
kudeatzaileak zuzenean eskuratzearen aurka egiten badu, zerga-betebeharrak eta
Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari dagokionez.

Araudia

- **Deialdiaren araudia AGINDUA, 2026ko apirilaren 21ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita 2026 ekitaldirako hiri merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta**

[lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako Hirigune programa](#)

Erakundeak

Deitzen duen erakundea

- Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa > **Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailburua**

Ebazten duen erakundea

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa / Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza > **Merkataritza Zuzendaritza**

Kontaktu-informazioa

Aplikazio informatikari buruzko kontsulta teknikoak:

- ZUZENEAN: 012 - 945018000
- Arazo informatikoetarako: 945016838
- EJI: ATMerkataritza@ejie.eus

Beste kontsulta motak:

- Beste pertsona baten bidez pertsona eskatzailearen ordezkartza-ahalordea
- Beharreko dokumentazioa
- Teletramitazio prozedura
- Laguntza-programaren edukiak

ZUZENEAN

TFNO.: 012 Y 945018000

Arabako Lurralde Bulegoa

Tfno. 945 01 70 54

Bizkaiko Lurralde Bulegoa

Tfno. 944 03 14 26

Gipuzkoako LurraldeBulegoa

Tfno. 943 02 25 65

Merkataritza Zuzendaritza (Lakua)

Tfno. 945 01 66 14

Zuzenean: Herritarrentzako arreta zerbitzua

Kodea

1015612

Tramitazioa

Eskabidea eta dokumentazioa aurkeztea

Eskabideak aurkezteko epea 2026ko maiatzaren 28an hasiko da, eta 2026eko ekainaren 29an amaituko da.

- **Tramitazio elektronikoa**

1. Bete itzazu eskatutako inprimakiak, inprimakirik badago.
2. Presta ezazu eskatutako dokumentazioa formatu digitalean.
3. Sartu zaitetz tramitazio elektronikorako aplikaziora. Identifikazio elektronikorako bitarteko bat izan behar duzu.

Dokumentazioa

- **Eskatzaileen aldetik aurkeztu beharreko ohiko dokumentazioa:**
- Eskabidea

Betekizunak

- Eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak:

Informazio xehetua

1. Eskabide formularioa.

2. Ordezkaritza hirugarren pertsonen esku utzi nahi izanez gero, ordezkari jardun dezaten modu elektronikoan, eta horretarako erabiltzen ez bada Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan dagoen ahalordetzeen erregistro elektronikoa, «Borondatezko legezko ordezkari egilestea-inprimaki normaldua» delakoa erantsi beharko zaio:

–Pertsona fisikoen kasuan: Ordezkaritza ematen duen pertsonaren NANA edo agiri baliokidea, baldin eta ez badu nahi instrukzio-organoak aipatu informazioa lor dezala administrazioarteko elkarreragingarritasun-zerbitzuen bitartez.

–Pertsona juridikoen kasuan: ordezkari-ahala edota ordezkari hirugarren pertsona bati ematen dion erakundearen legezko ordezkari gisa legitimatzen duen bestelako edozer agiri, zuzenbidez balio duena.

3. Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde eskatzaileak alta eman edo bere banku-datuak aldatu beharko ditu Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Hirugarrenen Erregistroan. Horretarako, dagokionaren arabera, aurrez aurre edo telematikoki egin ahal izango dute, <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/hirugarrenaren-datu-aldaketa> webgunean jasotako jarraibideen arabera.

Hirugarrenen alta Hirugarrenen Erregistro Telematikoaren bidez egiten ez bada, inprimakiarekin batera nortasun fiskaleko txartela ere aurkeztu beharko da.

4. Eskaearekin batera ondorengo agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskatzailearen identitatea egiaztatzen duen dokumentazioa; horretarako, eratze-eskritura, estatutuak eta erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko ditu.

b) Entitate eskatzaileak berariaz egiten badio aurka instrukzio-organoak identifikazio fiskaleko txartela beste administrazio batzuekiko elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez lortzeari, txartel hori aurkeztu beharko du.

c) Laguntza zer jarduketarako eskatzen den, bada horietako bakoitzerako azalpen-memoria bat, merkataritza-ikuspegitik egina, gutxienez informazio hau jasoko duena:

1) Garatu beharreko jarduera bakoitzaren gauzatze-proiektua, zera adieraziz:

1.a) Lortu nahi diren helburuak.

1.b) Gauzatu beharreko ekintzak.

1.c) Egindakoaren eraginkortasuna neurtzeko adierazleak.

2) Sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatuak.

3) Gauzatze-egutegia.

4) MSPB azterlanean edo hori ordezkatzeko edo osatzen duen beste azterlan batean sartzen dela.

Udalerririk PERCO azterlanik ez badu, udalerriko merkataritza-garapenean jarduketak egitea egokia dela egiaztatzea.

5) Jardueran parte hartzeko aukera jakinarazteko erabiliko den sistema, hala behar den kasuetan.

d) Hiri-merkataritzako elkarte, plataforma, talde edo elkarteko idazkariaren ziurtagiria, 2025eko abenduaren 31n eguneratutako bazkideen zerrenda eta bazkide bakoitzak azken ekitaldian bildutako kuotak jasotzen dituen. Enpresen zerrenda sexuaren arabera bananduta islatu beharko da; alegia, merkataritza-enpresetako titular diren emakumezkoak adieraziko dira, alde batetik, eta titular gizonezkoak, bestetik.

e) Udalerriko elkarteek sinatutako akordioa, 4. artikuluan adierazitakoaren arabera.

f) Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 22.2 artikuluan identifikatutako administrazio-ziurtagiri positiboak, baldin eta eskatzaileak organo kudeatzaileak zuzenean eskuratzearen aurka egiten badu, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari dagokionez.

Informazio gehiago

Eskabidea aurkezteko epearen barruan elektronikoki betetzea

Hirugarrenaren datuen alta edo aldaketa "Hirugarrenaren Erregistroan"

Administrazioak laguntzak eta diru-laguntzak ordaindu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean sartuta egon beharko duzu.

- [Tramitazio elektronikoa](#)

[Informazio gehiago](#)

EAEko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen ordainketa kudeatzeko hirugarrenen erregistroa kudeatzen duen aplikazioa da hau.

Aplikazio honek aukera ematen die erabiltzaileei bankuko datuei alta emateko eta datuok kontsultatu eta aldatzeko, betiere [finantza-erakundea](#) sistemari atxikita badago.

Ordainketa-sistemak bankuko kontu bakarra onartzen du pertsona fisiko edo juridiko bakoitzeko.

Dirulaguntza kobratzeko, eta pertsona edo enpresa onuradunaren bankuko edo izen sozialeko datuak aurretik eman ez badira edo aldatu nahi izanez gero, hirugarrenari alta emateko datuak eman beharko dira, Ogasun eta Ekonomia Sailak ezarritako ereduaren eta prozeduraren arabera (<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>).

[Identifikazio elektronikorako onartutako bitartekoak](#)

Justifikazioa

Ezarritako baldintzak betetzen dituzula eta aurreikusitako helburuak lortzen dituzula justifikatzeko, beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko duzu adierazitako lekuetan.

- [Tramitazio elektronikoa](#)

[Betekizunak](#)

- Diru-laguntza emateko egintzan ezarritako baldintzak betetzen direla eta bertan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzea.
- Justifikatzeko erantsi beharreko agiriak:

[Informazio xehetua](#)

Erakunde onuradunek justifikatu egin beharko dute ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta laguntzaren helburua lortu dutela. Horretarako, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Justifikazio-memoria. Memoria horretan, gutxienez, informazio hau jaso beharko da:

- 1) Lortutako helburuak.
- 2) Gauzatutako jarduketak edo ekintzak.
- 3) Elkarte bakoitzak jarduketa bakoitza gauzatzean izan duen partaidetza-maila.
- 4) Exekutututako gastua.

5) Jarduketa edo ekintza bakoitzaren gastuak eta sarrerak.

6) Dokumentazio grafikoa.

7) Betetako egutegia.

8) Egindakoaren eraginkortasuna neurtzeko adierazleen azken emaitzen balioespena.

9) Hurrengo ekitaldietan jarduketa errepikatzea komeni den eta zergatik.

b) Jarduketa bakoitzaren laburpen-koadroa, fakturak zerrendan jarrita eta zenbatuta (faktura-zenbakia, kontzeptua eta zenbatekoa). Justifikazio-agiriak taldekatuta aurkeztu behar dira: zuzeneko gastuak, batetik, eta zeharkako gastuak, bestetik. Diruz lagundutako jardueren zenbateko osoari dagozkion fakturak zerrendatu beharko dira.

c) Fakturak –gauzatze-epearen barruan eginak– eta horien banku-ordainagiriak; merkataritzako plataforma, elkarte multzo edo elkartearen izenean edo enpresa-antolakundearen izenean egon daitezke, edo erakunde horietako (plataforma edo taldea) kide den edozein elkarteren izenean.

Bakar-bakarrik onartuko dira 100 euro edo gehiagoko fakturak (BEZik gabe), diruz lagundu daitezkeen jarduketan deskribapena ondo identifikatuta dutenak; ez dira onartuko kodetutako kontzeptuak.

d) Diruz laguntzeko modukotzat onartu diren jardueren zeharkako gastuak justifikatzeko, nominak, Gizarte Segurantzari egindako ordainketak edo kontratazioen egiaztagiri ofizialak erantsi beharko dira. Erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztuko da, diruz lagundutako jarduketari benetan dagokion zeharkako gastuaren egozpena justifikatzeko eta erabilitako denbora eta egotzitako zenbatekoen kalkulua azaltzeko.

e) Berariazko parte-hartzea beharrezkoa den kasuan, jarduketara bildutako establezimenduen zerrenda, elkarte antolatzailearen kide den edo ez zehaztuta. Horri dagokionez, gogoratu txikizkako saltokien eta horiekin lotutako zerbitzuen partaidetzatik eratorritako gastuak bakarrik onartuko direla, agindu honen IV. eranskinean jasotzen den bezala. Bestela, ehunekoa murriztuko da.

f) Aitorpena, helburu bererako lortu diren laguntza, diru-sarrera eta baliabideena, berdindio administrazioetatik edo ente publiko nahiz pribatuetatik datozen, baldin eta diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko badira. Hauek zehaztuko dir

- Eskaeraren urtea.
- Erakunde finantzatzailea.
- Finantzaketaren jatorrizko programa.
- Jarduketa.
- Jarduketaren zenbatekoa, guztira.
- Eskatutako laguntzaren zenbatekoa.
- Emandako laguntzaren zenbatekoa.

g) Lankidetzaren publiko-pribaturako esparru-akordioan zehaztutako jarraipen-batzordearen balorazio-akta, eta, halakorik ezean, elkartearen txostena, bertan jasota

gauzatutako jarduketan adierazleen hasierako eta amaierako emaitzak, baita garatutako ekintza bakoitzetik lortutako ondorioak eta balorazioa ere. Horrez gain, hurrengo ekitaldietan jarduketa errepikatzea komeni den eta zergatik.

Informazio gehiago

Emandako laguntza justifikatzeko, inprimakia bete eta beharrezko dokumentazioarekin batera [Nire karpeta](#) en aurkeztu.

Izapide hau egiteko, [ziurtagiri elektronikoa](#) baten bidez identifikatu beharra daukazu.

Ebazpena eta errekurtsiak

Ebazteko epea

6 hilabete

Diru-laguntza emateko modua

Lehiaketarik gabe

Isilbidearen ondorioak

Gaitzetsiak

Beste tramite batzuk

Dokumentazioa aurkeztea

- [Tramitazio elektronikoa](#)
 1. Ziurtatu [identifikazio elektronikorako bitarteko](#) bat duzula.
 2. Prestatu dokumentazioa formatu digitalean ([dokumentuak nola digitalizatu](#)).
 3. Sartu Nire karpeta aplikaziora.

Informazio gehiago

Dokumentazioa aurkezteko, sartu Nire karpetara ([identifikazio elektronikorako bitartekari](#) bat behar da):

- [Identifikazio elektronikorako onartutako bitartekoak](#)

Zuk beharrezko iruditzen zaizkizun agiriak eman ditzakezu, nahiz eta Administrazioak ez eskatu.

Atzera egitea

- [Tramitazio elektronikoa](#)
 1. Ziurtatu [identifikazio elektronikorako bitarteko](#) bat duzula.
 2. Prestatu dokumentazioa formatu digitalean ([dokumentuak nola digitalizatu](#)).
 3. Sartu Nire karpeta aplikaziora.

Informazio gehiago

Ebazpena eman baino lehen, eskabidean atzera egiteko aukera dago.

Atzera egin arren, babesten zaituzten eskubideak mantenduko dira, eta beste prozedura baten erabiltzeko aukera izango da.

Informazio gehigarria: [Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikulua](#)

Uko egitea

- [Tramitazio elektronikoa](#)
 1. Ziurtatu [identifikazio elektronikorako bitarteko](#) bat duzula.
 2. Prestatu dokumentazioa formatu digitalean ([dokumentuak nola digitalizatu](#)).
 3. Sartu Nire karpeta aplikaziora.

Informazio gehiago

Noiz egin diezaioket uko laguntza bati?

Ebazpena eman ondoren, edozein momentutan.

Zer gertatzen da nire eskubideekin?

Uko egiten baduzu, galdu egingo dituzu prozedura honetan babesten zaituzten eskubideak

Informazio gehigarria: [Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikulua](#)

Dokumentazioa zuzentzea

- [Tramitazio elektronikoa](#)
 1. Ziurtatu [identifikazio elektronikorako bitarteko](#) bat duzula.
 2. Prestatu dokumentazioa formatu digitalean ([dokumentuak nola digitalizatu](#)).
 3. Sartu Nire karpeta aplikaziora.

Informazio gehiago

Eskaerak deialdiko arauan ezarritako betekizunak betetzen ez baditu, organo eskudunak 10 eguneko epea emango dizu akatsak zuzentzeko. Zuzentzen ez badituzu, Administrazioak eskaeran atzera egin duzula ulertuko du.

Agiri hauek aurkez ditzakezu:

- Administrazioak eskatu dizkizun agiriak, baldin eta zuzentzeko errekerimendua jakinarazi badizu.
- Beharrezkotzat jotzen dituzun agiriak, nahiz eta Administrazioak ez eskatu.

Informazio gehigarria: [Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua](#)